

LEABURU-TXARAMA. Maria Luisa Agirreri omenaldia egin dio Udalak liburutegiarentzat liburuak emana eskertzeko

A.Imaz

Maria Luisa Agirre medikuari Leaburu-Txaramako Udalak omenaldia egin zion herenegun, Udal Liburutegiari eman dizkion liburuen esker onez.

Lehenik hurrek, eurek egindako marrazkiak oparitu zizkioten. Ondoren, Udalak eskerrak emanaz, liburutegiko txartela eskaini zion 88 urteko herriko medikuari. Opariak jasotzeko garaian, haurrak inguruan zituela beraingana zuzendu zen Maria Luisa: Niri haurrak asko gustatzen zaizkit. Eta zuei gauza bat esan nahi dizuet: batzuk bitxiak, urrezko eraztunak eta horrelako apaingarriak jazen dituzte. Baina munduko aberatsena izan nahi baldin baduzue, irakurri eta irakurri egin behar duzue. Liburuak irakurtzen badituzue, oso aberatsak izango zarete; munduko gauzarik ederrena baita irakurtzea.